

# TRANSFEMINISMOTIK EKARRIAK HAUR HEZKUNTZARA. ESKOLA ETA IDENTITATEARI BURUZKO KASU AZTERKETAK NEOLIBERALISMO GARAIAN

**Tesiaren egilea:** Irati Leon Hernandez

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

**Saila:** Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saila

**Tesi-zuzendaria:** María Teresa Bizkarra Morales eta Rakel Gamito Gomez

**Tesiaren laburpena:**

Ukaezina da egungo sistema neoliberalak sustaturiko lehiakortasun eta indarkeriazko agertoki sozial baten aurrean gaudela. Artean, genero- eta sexualitate-politikek askotariko erak dituzte emakumeen eta gorputz/identitate ez-hegemonikoek pairatzen duten zapalkuntzan esku hartzeko. Horren aurrean, beharrezkotzat jotzen da hezkuntza-komunitatetik hausnarketa kritiko bat egitea, askatzaileagoa izango den hezkuntza-sistemaren aldeko erronkan eta neoliberalismoaren antipodetan.

Honako ikerketa honek lau kasu-azterketa jasotzen ditu, haurtzaroaren eta generoaren baitan analisi bat egitea bilatzen dutenak, ostean, identitateari buruzko eztabaidetan zenbait argudio indartzeko eta transfeminismotik datozen eztabaida berriak mahaigainean jartzeko. Beraz, prozedura metodologikoa lau fasetan antolatzen da. Lehen ikerketak eskolaren erradiografia bat egiten du; bigarrenak aurrekoa osatzea bilatzea du, eskolako zenbait erronka jasoz; hirugarren ikerketak identitatearen garapena aztertzen du, eta laugarrenak eta azkenak aurreko ikerketen elkarguneak bilatzen ditu, zenbait gako identifikatzeko. Parte-hartzaileei dagokienez, lehen eta bigarren ikerketetan hezkuntzako 14 aditu elkarrizketatu dira; hirugarren ikerketan, berriz, 4 talde-eztabaidaren bidez, sexu-genero disidentziaren kolektiboko 21 kideren berri jaso da; eta laugarren ikerketan ahots denak gurutzatu dira, lana biribildu eta begirada poliedriko bat ehunduz. Kasu-azterketen bidez askotariko iritzi eta bizi-historiak bildu dira eta, ondoren, Nvivo 12 softwarearekin egindako sistema kategorial baten bidez antolatu da informazioa, eta diskurtsoa osatu.

Emaitzek agerian utzi dute ezinbestekoa dela proposamen integralak egitea, zeharkakoak, kokatuak eta komunitatearekin elkarlanean, eredu neoliberaleri, neurgailu moralei eta (ber)binarizazioari adi egongo direnak. Horregatik, alde batetik, Mugimendu Feministarekin saretzea ezinbestekotzat jotzen da eta, bestalde, (des)eraikuntza-estrategietatik abiatzeko beharra adierazten da; helduok, sexualitatea, generoa zein identitatea ulertzeko ditugun eredu zurrinak haurtzarora aplikatzeari utzi behar diogu. Azkenik, Haur Hezkuntzako proposamen pedagogikoak balioan jartzearen aldeko jarrera adierazten da, horien potentzialtasun sortzaile eta askatzailea aldeztuz.

Ikerketaren amaieran, epistemologia feministetatik jasotako emari pedagogikoa ulertzeko zenbait gako adierazten dira, paradigma anizkoitz, kritiko eta subertsibo batetik gerturatzeko Haur Hezkuntzako etapara.